

Kontsumoko Prezioen Indizea (Oinarria: 2021)
2024ko martxoa

KPlaren urteko aldakuntza-tasa % 3,4koa izan da martxoan Nafarroan, hau da, otsailean erregistratutakoa baino bederatzita hamarren handiagoa


Indize orokorraren hileko aldakuntza % 1,0koa izan da

2024ko apirilaren 12a

Azpiko inflazioaren urteko tasa sei hamarren igo da eta % 3,6koa izan da

1. GRAFIKOA

KPlaren urtetik urterako aldakuntza-tasak (%)



Iturria: Nastat, INEren Kontsumoko Prezioen Indizea oinarri hartuta.



URTEKO BILAKAERA

Nafarroan, Kontsumoko Prezioen Indizearen (KPI) urteko tasa % 3,4koa izan da 2024ko martxoan, hau da, aurreko hilabetearen erregistratutakoa baino bederatzita hamarren handiagoa.

Urteko tasaren bilakaeran eragin positiborik handiena izan duten taldeak honako hauek izan dira:


- **Aisia eta kultura:** % 7,0ko urteko aldakuntza, hau da, aurreko hilean erregistratutakoa baino zazpi puntu handiagoa.
- **Etxebizitza:** % 0,6ko aldakuntza, hau da, aurreko hilean erregistratutakoa baino lau puntu handiagoa.
- **Garraioa:** % 2,5eko tasa, hau da, aurreko hilekoa baino zazpi hamarren handiagoa.

Bestalde, urteko tasan eragin negatiborik handiena izan duten taldeak honako hauek dira:

- **Elikagaiak eta edari alkoholgabeak:** % 4,5eko tasa, hau da, aurreko hilean erregistratutakoa baino puntu bat eta sei hamarren txikiagoa.
- **Edari alkoholdunak eta tabakoa:** % 4,5eko aldakuntza, hau da, aurreko hilean erregistratutakoa baino sei hamarren txikiagoa.
- **Beste ondasun eta zerbitzu batzuk:** % 2,5eko aldakuntza, hau da, aurreko hilekoa baino lau hamarren txikiagoa.

2. GRAFIKOA

2024ko martxoan Nafarroako urteko tasak aurreko hilabetearekin izan duen aldea



Iturria: Nastat, INEren Kontsumoko Prezioen Indizea oinarri hartuta.

Azpiko inflazio-tasa. Azpiko inflazioaren urteko aldakuntza-tasa (Indize orokorra, landu gabeko elikagairik eta produktu energetikorik gabe) % 3,6koa izan da Nafarroan, hots, sei hamarren igota da, eta KPI orokorra baino bi hamarren handiagoa izan da.



CONTACTO I HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00

HILEKO BILAKAERA

Martxoan, Nafarroako KPI orokorraren hileko aldakuntza-tasa % 1,0koa izan da.

Indize orokorrean eragin positiborik handiena izan duten taldeak honako hauek dira:

- **Aisia eta kultura:** % 5,8ko aldakuntza eta 0,576ko eragina hileko indize orokorrean.
- **Etxebizitza:** % 1,9ko tasa eta 0,213ko eragina.
- **Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak:** % 0,8ko tasa eta 0,120ko eragina.

Bestalde, KPIaren hileko tasan eragin negatiborik handiena izan duten taldeak honako hauek dira:

- **Elikagaiak eta edari alkoholgabeak:** -% 0,3ko tasa eta -0,054ko eragina indize orokorrean.
- **Beste ondasun eta zerbitzu batzuk:** -% 0,1eko tasa eta -0,011ko eragina.
- **Komunikazioak:** -% 0,1eko tasa eta -0,004ko eragina.

ESPAINIAKO DATUAK

- KPIaren **urteko aldakuntza-tasa** % 3,2koa izan da martxoan, hau da, otsailean erregistratutakoa baino lau hamarren handiagoa.
- **Azpiko inflazioaren** urteko tasa bi hamarren jaitsi da eta % 3,3koa izan da.
- Indize orokorraren **hileko aldakuntza** % 0,8koa izan da.

1. TAULA

Kontsumoko Prezioen Indizeak Nafarroan eta Espainian (oinarria: 2021). 2024ko martxoa

Taldea	NAFARROA				ESPAINIA			
	Indizea	Aldakuntza (%)			Indizea	Aldakuntza (%)		
		Hilekoa	Urtea hasi zenetik	Urtekoa		Hilekoa	Urtea hasi zenetik	Urtekoa
Elikagaiak eta edari alkoholgabeak	128,2	-0,3	0,3	4,5	128,4	0,1	0,6	4,3
Edari alkoholdunak eta tabakoa	115,8	-0,1	3,4	4,5	116,1	0,1	3,9	4,0
Jantziak eta oinetakoak	103,5	1,3	-10,1	3,8	101,6	2,4	-10,2	1,2
Etxebizitza	109,8	1,9	3,8	0,6	105,7	2,2	4,3	1,5
Etxeko gauzak	114,0	0,3	0,2	1,2	112,3	0,2	0,0	1,0
Medikuntza	105,3	0,3	0,8	2,2	104,6	0,3	0,8	2,1
Garraioa	114,9	0,7	2,2	2,5	113,6	0,5	2,2	2,9
Komunikazioak	101,6	-0,1	1,6	0,0	102,4	-0,1	1,7	0,4
Aisia eta kultura	113,2	5,8	2,8	7,0	109,1	1,8	0,7	3,8
Irakaskuntza	101,9	0,1	0,2	3,1	105,4	0,1	0,1	2,9
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	114,0	0,8	0,4	4,9	117,4	0,9	1,7	5,5
Beste ondasun eta zerbitzu batzuk	109,5	-0,1	0,7	2,5	110,8	0,2	1,3	3,0
INDIZE OROKORRA	115,0	1,0	0,9	3,4	114,7	0,8	1,2	3,2

Iturria: Nastat, INEren Kontsumoko Prezioen Indizea oinarri hartuta.



CONTACTO I HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00

KPI-AREN KALKULAGAILUA

Jakin nahi al duzu zenbat aldatu den KPIa bi aldiren artean? Errenta bat eguneratu behar al duzu?

[Kalkulagailu](#) hau erabil dezakezu; Nafarroako eta Espainiako aldakuntzak lortuko dituzu.



OHAR METODOLOGIKOA

Kontsumoko Prezioen Indizea (KPI) koiunturako adierazle bat da, eta Espainian bizi diren etxeek eskuratutako kontsumoko ondasun eta zerbitzuen prezioen bilakaera neurtzen du.

Estatistikako Institutu Nazionalak egiten duen eragiketa estatistikoa da eta honako ezaugarri nagusi hauek ditu:

- **Inkesta mota:** jarraitua, hilean behin egiten dena
- **Oinarrizko aldia:** 2021
- **Haztapenen erreferentzia-aldia:** aurreko urtea
- **Artikulu kopurua:** 462 ohiko bilketa bidez eta 493 scanner data bidez
- **Behaketa kopurua:** ohiko bilketa bidezko artikuluen hileko 210.000 prezio inguru Estatu osoan.
- **Sailkapen funtzionala:** ECOICOP
- **Kalkulu-metodo orokorra:** Laspeyres kateatua
- **Bilketa-metodoa:** elkarrizketatzaileak establezimenduetan, scanner data eta bilketa zentralizatua artikuluko berezietarako.

Informazio gehiago nahi izanez gero, Estatistikako Institutu Nazionalaren webgunean kontsulta daiteke adierazle honen metodologia.



INFORMAZIO GEHIAGO

Nastat

Kontsumoko Prezioen Indizea. 2024ko martxoa.



CONTACTO I HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00